

DIAGNOSTIKORAKO TXOSTEN-GIDA

**EUS-
KAL
HERRI
TA-
RRAK**



**nazio
eztabaida
gunea**

Euskal jendartearen barruan hain nabariak diren desberdintasunak oinarritzat hartuz, denontzako barneratzailea izango den proiektu bat eraikitzea da gure erronka; euskal herritarrok (Euskal Herria osatzen dugun subjektuak, alegia) eskubide sozial, zibil eta politiko indibidual zein kolektiboan jabe izatea lor dezagun.

Helburu hori begi bistan dugula, bere osotasunean atzeman nahi dugu euskal subjektu hori, historikoki ukatua izan den funtsezko bi izaeretan, emakume eta gizonarenean, alegia; bakoitza dagozkion identitate propio indibidual eta kolektiboekin. Izan ere, jendartearen egitura osoa emakumeen existentzia, behar, interes eta ekarpenen ahanztura eta bazterketa kontzientean dago eraikita. Hori dela eta, guk izaera biak hartu nahi ditugu aintzakotzat, eta eremu guztietan jarri aztergai, oso ondorio desberdinak eragin baitaitezke emakume eta gizonengan.

Testuinguru horretan ere, Nazio Eztatanda Gunea ahaleginduko da emakumeen partehartzea bultzatzen bere egitura eta prozesuetan.

1. Nor bizi da Euskal Herrian?

Beste herri batzuekin alderaturik, herri ertain-txikitat jo daiteke gurea; eta are txikiago, berriz, erreferentzia gaur eguneko estatuak soilik badira, normaltasun osoz ari diren estatu txikiagoak ere badiren arren. Ofizialki 2.900.000 pertsona inguru bizi gara Euskal Herrian.

Hala ere, historiara begiratuz, inoiz baino biztanle gehiago gara Euskal Herrian. Izan ere, oso herri txikia izan gara tradizionalki, eta XIX. mendearen amaieran hasten den industrializazioak bakarrik apurtu du joera hori. Guztiz apurtu ere, orain ehun urte, 1900ean, milioi bat pasatxo biztanle baino ez ginen eta. Tarte labur honetan ia hirukoiztu egin da biztanle kopurua¹.

Hazkunde hori ez zen gertatu modu natural batez. Erran nahi baita, biztanleria ez zen hazi bertako jendea azkarrago ugaltu zelako. Horrek ere lagundu zuen, baina pisu handiagoa eduki zuen kanpotik etorritako jendeak. Era horretara, joera kontraesankorra gertatu zen Euskal Herrian: bertako jende batek, mendeetako tradizioari eutsiz, gure herritik alde egiten zuen bitartean (Amerika, Frantzia eta Espainiara, gehienak); Espainiatik hona hasi zen jendea etortzen, XIX. mende amaieratik aurrera.

Hasiera horretan, Bizkaia, lehenengo, eta Gipuzkoa bilatzen zuten etorkinek. Jendea gainezkaturik dagoen nekazal ingurutik soldatapeko lana eskaintzen duen industriaguneetara abiatzen da. Inguruko eskualdeetatik, Araba eta Nafarroa Garaitik, eta Euskal Herri ondoko Espainiako herrialdeetatik emigrazio fluxu sendo eta etengabe bat garatzen da industria-

Oharrak:

¹ Txosten honetako datu asko Aztiker taldeak Udalbiltzarako eginiko ondoko liburutik hartu dira: Aztiker taldea (2002): Euskal Herria datuen talaiatik, Astigarraga: Udalbiltza, 45. or.

Oharrak:

lizatzen hasi diren herrialde bi horietara.

Era horretara, XX. mendearen lehenengo erdian, Euskal Herria hazi egin zen biztanlez: oso azkar eta indarrez Bizkaia eta Gipuzkoan; apurka baizik ez Araba, Nafarroa Garaia eta Lapurdi; eta indize negatiboz Nafarroa Beherea eta Zuberoan. Ohartarazi behar da Nafarroa Garaia eta Lapurdiren hazkunde txiki hori kanpotik etorritako immigrazioari esker lortzen dela, aldi berean jende kopuru handiek emigratu baitzuten.

Hazkunde orokor hori izugarri intentsifikatu zen XX. mendearen erditik aurrera, 1975 aldera arte, baina abiapuntuko bi herrialdeez gain, Araba eta Nafarroa Garaia ere hasi ziren immigrazioa jasotzen eta, ondorioz, hazten.

1.1. Nor bizi da gaur Euskal herrian?

1975 urtetik hona aurretik zetorren joera aldatzen hasi zen. Orduan zabaltzen ari zen krisi ekonomikoak eta ohi-tura aldaketek eten egin zuten hazkundera. Orokorrean esanda, immigrazioa jaisten hasi zen eta, gainera, II. Mundu Gerratik aurrera hainbeste hazi ziren jaiotza tasak ere murrizten hasi ziren. Baina joera orokor hau Euskal Herrian muturrera heldu zen, halako moldez non Euskal Herria baita haur gutxien jaiotzen den Europako herrialdea. Ondorioz, hurrengo urteetan berezko hazkunde eta migrazio saldo negatiboak agertu ziren Euskal Herrian. Hots, jende gehiago hiltzen zen jaiotzen zena baino; eta jende gehiago joaten zen zetorena baino.

Hala ere, datu absolutu horiek ezkutatu egiten dute barruan gertatzen den joera aldaketa bat. Populatuena izaki, Bizkaia eta Gipuzkoaren saldo negatiboak Euskal Herri osokoa kutsatzen du, baina, tarte horretan, Araba, Nafarroa Garaia eta Lapurdik jarraitu egin dute hazkunde joerarekin alde bietan; berezko hazkundera eta migrazio saldoan, alegia. Gainerako lau herrialdeek, berriz, beherantz egin dute: gutxiago Gipuzkoak, eta nabarmen beste hirurek. Deigarrienak Bizkaia eta Zuberoa dira; lehena, datu absolutu altuak direlako; eta bigarrena, portzentualki jaitsierarik handiena delako. Migrazio saldoa ere positibo bihurtu da, oro har, azkeneko urteotan. Batzuek jarraitzen dute alde egiten: arrazoi ekonomikoengatik, orokorrean, Euskal Herriko iparraldean; eta arrazoi ekonomiko eta sozialengatik Euskal Herriko hegoaldean: lan bila doazen gazteak, edo, erretiroa hartzean, aurretik etorritako jendearen zati bat jaioterrira itzuli delako, esate baterako. Baina doazenak baino gehiago dira etortzen direnak: industria gunetara batzuetan, zerbitzu eta turismoaren bila, besteak. Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Araba dira jende gehien hartzen dutenak; eta Bizkaia, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, berriz, saldoa negatiboa da. Datorren jende hau Afrika, Amerika eta Ekialdeko Europakoa da gero eta gehiago. Ezkutuan datoz askotan, eta horrek zaildu egiten du datu zehatzak ematea.

Beraz, nahiko tarte laburrean Euskal Herria berriro bihurtateke immigrazio gune garrantzitsu. Horrek berriro ekar dezake ezgonkortasun soziala, baina gure herriak asko ikasi

du aurreko immigraziotik eta itzarotekoa da arreta berezia ipintzea integratzeko zailtasun oro ezabatzeko. Haien sus-traiak ukatu eta galarazi gabe, aukera eman behar zaio etor-kinari gure herriaren ezaugarriez jabetzeko.

Azkeneko ehun urteotako ondorio bat da gaur egun Euskal Herrian bizi den jendearen jatorria oso askotarikoa izatea: ia hirutik bat Euskal Herriatik kanpo jaio da. Euskal Herriko biz-tanleen erdia hemen jaioa da, eta hemen jaiotako gurasoak ditu; eta beste erdiak kanpoan jaiotako gurasoak ditu². Aldi berean, asko dira baita ere Euskal Herriatik joan zirenak. Kalkulatzen da lau milioi eta erdi pertsona direla munduan euskal jatorria dutenak³.

Beste alde batetik, azkeneko urteotan berezko hazkundean eta migrazioetan gertatu diren saldo negatiboek eragina eduki dute adin piramidean. Euskal Herria herri zaharra da jendea-ren adinari dagokionez: proportzioan gazte gutxi eta zahar asko dago. Berriro ere proportzioan, zahar horien artean emakumeak gizonak baino askoz gehiago dira, eta zenbat eta zaharrago, are nabariagoa distantzia, halako moldez non 85 urte baino gehiago dituztenen artean, %72a emakumeak, eta %28a gizonak baitira⁴.

2. Non bizi da Euskal Herriako jendea?

Gainerako herrietan bezala, tradizionalki Euskal Herria lehenengo sektoreko jardueretatik bizi izan da, gehien-bat. Horrek biztanleria gune txikietan eta sakabanatuta bizit-zea eragin du. Merkataritzari loturiko hiririk handienek ere ez zuten mila gutxi batzuk baino biztanle gehiago.

Joera hori, noski, industrializazioarekin aldatzen da. Nekazari inguruetatik uholdeka abiatzen da jendea industria guneetara, eta, ondorio bezala, horrek dentsitate handiko hiri-guneak eta jendez hustutako nekazari herriak ekarri dizkigu. Horrela, orain dela 125 urte (1877an, hain zuzen ere) Nafarroa Garaia zen herrialde populatuena: bertan bizi zen Euskal Herriko biztanleriaren herena. 1900erako, berriz, Bizkaia aurreratu zitzaion, eta hori hango industrializazio berriak eragin zuen⁵.

Gaur egun ere, Bizkaia da herrialde populatuena, biztanleria osoaren %38,7rekin. Euskal Herriko hamar biztanleko: ia lau Bizkaian bizi da; bina Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian; eta bana Lapurdi eta Araban; azkenik, hamar pertsona horietatik, %0,1 bakarrik bizi da Nafarroa Beherean; eta %0,05 besterik ez Zuberoan⁶.

Oro har, dentsitate demografiko altuko herrian bizi gara: 138,6 biztanle / km² ko. Hala ere, bereizketa nabarmen bat

Oharrak:

2 in Euskal Herria datuen talaiaatik (op. cit), 102. or.

3 in Euskal Herria datuen talaiaatik (op. cit), 105. or.

4 1999ko datuak, in Euskal Herria datuen talaiaatik (op. cit), 83. or.

5 in Euskal Herria datuen talaiaatik (op. cit), 48-49. orr.

6 in Euskal Herria datuen talaiaatik (op. cit), 27. or.

dearen bigarren erdialdean izugarri hazi da bizitza maila, eta horrek isla zuzena eduki du jendearen erosketa maila eta ohi-turetan.

Lehenengo Munduaren joerari jarraiki, zerbitzuetan lan egi-ten dute euskal herritar gehienek: hamarretik seik; eta oso gutxi bizi dira nekazaritzatik: bat baino gutxiago 25 biztanle okupatuko; azkenik, hamarretik ia lauk industriari lan egiten du, Europako Batasuneko indizerik altuena, hain zuzen ere¹⁴. Datu horiek adierazten digute nolako aldaketa gertatu den Euskal Herrian hamarkada gutxitan. Nekazaritza jendarte zena industria eta zerbitzu jendarte bihurtu da, hiriguneetan bizi dena.

Hala ere, badago desberdintasunik herrialdeka. Horrela, Nafarroa Beherean eta Zuberoan %20a baino gehiago bizi da nekazaritzatik; industriak askoz pisu handiagoa dauka Euskal Herriko hegoaldean iparraldean baino; zerbitzuetan, azkenik, Lapurdiko lau lanpostutik hiru sektore honetan sortzen dira. Bestalde, kontuan hartzekoa da nekazaritza, gero eta garrantzi gutxiago edukitzeaz gain, adineko jende gehien batzen duen sektorea delako¹⁵.

3.1. Euskal Herriko jendea bizi baldintza txarretan: langabezia eta jendarte bazterketa

Sektoreez eta enplegatutako jendeaz hitz egitea ez da nahikoa gaur egun, lehenago ez bezala, jende kopuru handi bat ezin baita estatistika horietan sartu, hor retarako aukerarik ez duelako. Langabetuen arazoa da, berarekin daramatzen gainerako arazoekin batera.

Oraingo langabeziaren ezaugarri bat estrukturala izatea da; hots, ez dela une luze edo laburrago bateko kontua, gaur eguneko kapitalismoaren norabideari loturiko zerbait baizik.

Kapitalismoaren oraingo egiturak ez du hartzen lan egiteko adinean dagoen biztanleria guztia eta, beraz, langabezia berez konponduko ez den arazoa da. Horrela, 1999-2000 urteetan, Euskal Herriko langabezi tasa %14 ingurukoa zen; handiagoa Bizkaian (%16,8), eta txikiagoa Nafarroa Garaian (%6)¹⁶.

Tasa horiek nabarmenki handiagoak dira (bi halako, oro har) emakume eta gazteen kasuan. Langabeziari aurre egiteko, diru laguntzak bideratzen ditu estatuak, baina Euskal Herriko hegoaldeko langabetuetatik erdiak bakarrik hartu zituen halako laguntzak 2003an¹⁷.

Langabeziak jendarte arazoak sortzen ditu, baina hemengo espektatiba faltak Euskal Herriko giza deskapitalizazioa ere eragiten du, langabetu batzuk beste herrialde batzuetara abiatzen baitira, lanpostu bila. Biztanleria gaztea izaten da, gainera, demografia arazoak handituz.

Hori jakinik, lan merkatua izugarri malgutatu da. Oraingo lanpostu gehienak aldi baterako dira. Euskal Herriko hegoalde-

Oharrak:

14 in Euskal Herria datuen talaiatik (op. cit), 121. or.

15 in Euskal Herria datuen talaiatik (op. cit), 129. or.

16 Euskal Herriko iparralden %13 1999an; Euskal Herriko hegoaldean %14 2000n

17 INEMen datuak, 03-07-05eko Garan bilduak. Euskal Herriko iparralderako ez da agertzen daturik

18 INEMen datuak, 03-07-05eko Garan bilduak. Ez dugu daturik Euskal Herriko iparralderako

Oharrak:

4.1. Nor da Euskal Herritar?

Naziotasun kontzeptua subjektibotasunaren eremuari dagokio. Hots, norberak erabakitzen du, bere sentimenduen arabera, zein naziori atxikitzen zaion. Arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke. Lurralde bera konpartitzea, hizkuntza bera mintzatzeara, ezaugarri etnikoak partekatzea... denak izan daitezke arrazoi nahikoa nazio bateko kide izateko. Ofizialki, pertsona bat espainiar, frantziar, turkiar edo irakiar dela agertu arren, berak kataluniar, euskal herritar edo kurdutzat eduki dezake bere burua, eta senidetasun lotura batzuk sentitu naziokidetzat dituenekiko.

Hiritartasun kontzeptua, berriz, objektibotasunaren eremuari dagokio, eta administrazio arau batzuek erabakitzen dute nor den edo izan daitekeen estatu bateko hiritar: estatuko lurraldean jaiotzea, bertan bizitzen urte asko eramatea, bertako batekin ezkontzea, eta abar. Hiritartasunak eskubideak eta betebeharrak daramatza berarekin.

Ohartarazi behar da estatuak, normalean, batu eta nahastu egiten dituztela kontzeptu biak batean, naziotasuna oso erabilgarria baita estatuko biztanleen kohesioa lortzeko. Herri bateko biztanleek nazio sentimendu bera partekatzen dutela pentsatzeak erraztu egiten du elkarbizitza, eta gutxitu egiten ditu estatu barruko gatazkak. Hori dela eta, estatu baten barruan naziotasun sentimendu berezi bat garatu nahi duen kolektibo bat agertzen denean, estatu arriskutzat jotzen da. Hori da Euskal Herriko kasua Frantzia eta Espainiarekin. Ez dago euskal hiritartasun administratibo absoluturik, ez baitago euskal estaturik, baina bai euskal naziokidetasun sendo eta hedatu bat.

Kontzeptu biak nahasteak, bestalde, arazo terminologikoa ere eragiten du, kasu bietan herrialde bateko kidetasuna errebin-dikatzen da eta. Hau da, pertsona bat, kasu, frantziar senti daiteke frantziar nazioan sinesten duelako, frantziar hiritartasuna duelako, edo biengatik batera. Azkeneko aukera hori bultzatzen du estatuak, baina horrela ez bada, arazoak sortzen dira, Euskal Herrian gertatzen den bezala:

- Espainiar eta frantziar hiritartasuna duen jende askok ez du espainiar eta frantziar naziotasuna pro-piotzat hartzen; baina euskal nazioaren kide sentitzen direnek espainiar, frantziar edo beste estatu bateko (Argentina, Txile...) hiritartasuna dute

- Euskal Herrian bizi direnek espainiar eta frantziar hiritartasuna dute, baina hiru nazio kidetasun daude: euskal herritarra, espainiarra eta frantziarra.

Beste alde batetik, euskal hiritartasun ofizialik egon ez arren, pentsa dezakegu hiritartasun hori bertan bizi eta eskubide eta betebeharrak administratiboak eskuratzen dituenak eduki lezakeela. Kasu horretan ere arazoak sortuko lirateke:

- Pertsona bat euskal nazioaren kide senti daiteke, baina Argentinan bizi eta, beraz, argentinarraren hiritartasuna eduki. Euskal herritar, nazioaren kide sentitzen den aldetik izango litzateke; baina ez euskal herritar juridikoa,



**nazio
eztabaida
gunea**